

UDALBURUA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2015EKO ABENDUAREN 17AN
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Esteban Hernando
Lauren Uria
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamabosteko abenduaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udaltzako Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Xabier Artiñano

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongi-etorria eman die guztiei osoko bilkurara, eta beste ezer esan gabe eguneko aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu eta bozkatu dira:

1. Onestea, bidezkoa bada, 2015eko azaroaren 19an egindako bilkuraren akta.

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Aldatzea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren artean eginiko lankidetzaren hitzarmena, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2015. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2015eko maiatzaren 21ean Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren artean eginiko lankidetzaren hitzarmena onetsi zen, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2015. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

IKUSI DA.- Hamargarren klausulan hitzarmenaren gehienezko zenbatekoa ezartzen zen (50.716,49 euro), aurreko urteetan izandako batez besteko okupazioa kontuan hartuta.

AINZAT HARTU DA.- 2015ean Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa nabarmen handitu da eta bederatzi erabiltzaile ditu orain. Beraz, kudeaketa-

gastuak hasiera batean aurreikusitakoak baino handiagoak dira. **Hortaz, hitzarmena aldatu eta zenbatekoa 8.000,00 eurora handitu beharko litzateke.**

AINTZAT HARTU DA.- 2015erako indarrean dagoen aurrekontuko 231.227.005 aurrekontuko partidak ez du kreditu nahikoa eta egokia, aipatutako gastuaren handitzea ordaintzeko. Ondorioz, aurrekontua aldatu behar da.

AINTZAT HARTU DA.- 2015eko abenduaren 09an eginiko Gizarte Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordearen aldeko txostena.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehena.- Aiarako Udalaren eta Alday Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmenaren hamargarren klausula aldatzea, Arespalditzan dagoen Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2015. urtean kudeatzeko eta mantentzeko; eta zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduari dagokion gastuaren zenbatekoa 58.070,00 eurora handitzea.

Bigarrena.- Aldaketa hori indarrean sartuko da aipatutako gastua ordaintzeko beharrezkoa den aldaketa egin denean aurrekontuan.

Hirugarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea aldaketa hau gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentuak sina ditzan.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Alday Ongintzazko Fundazioari, jakin dezan eta behar diren dokumentuak legezta ditzan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak eta “Eskutxiko Ahotsak” elkarteak 2015.urtean egindako lankidetzahitzarmena.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak musika eta musikaren erabilera sustatu nahi ditu esparru guztietan. Halaber, ikusi da Eskutxiko Ahotsak elkarteak hori bultzatu nahi duela.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, musika sustatzeko egiten diren ekimen eta jardueren sustapena bultzatzeko.

IKUSI DA.- Euskara, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2015eko abenduaren 9an eginiko aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Eskutxiko Ahotsak elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, urteko jarduerak eta jarduera martxan egoteak eragiten dituen gastuak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Eskutxiko Ahotsak elkarteari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Luiaondoko 3. poligonoko 1333. lursailaren xehetasun-azterketa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Luiaondoko 3. poligonoko 1333. lursailaren xehetasun-azterketa, udalak sustatua.

IKUSI DA.- 2015eko irailaren 16an behin-behinean onetsi zen, eta jendaurrean ikusgai egon den epean ez dela alegaziorik edo erreklamaziorik egin.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2015eko abenduaren 09an egindako aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 98. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak, aho batez, **ERABAKI DU**:

Lehena.- Behin betiko onestea Luiaondoko 3. poligonoko 1333. lursailaren xehetasun-azterketa.

5.- J. M^a O. S. jaunak bidalitako 2. ziurtagiria onesten duen 537/15 Alkatetza-Dekretua berrestea. Ziurtagiria “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko” obrarako da.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- J. M^a O. S. jaunak bidalitako 2. ziurtagiria onesten duen 537/15 Alkatetza-Dekretua. Ziurtagiri hori aurkeztu du PC-01 obra-unitatea egiteko. Hori ez dago aurreikusita “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko” proiektuaren aurrekontuan. Obra hori estalkian hegala jartzeko da, eta zenbatekoa 4.988,85 eurokoa da, BEZa barne.

Udalbatza Osoak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehena.- J. M^a O. S. jaunak bidalitako 2. ziurtagiria onesten duen 537/15 Alkatetza-Dekretua berrestea. Ziurtagiri hori aurkeztu du PC-01 obra-unitatea egiteko. Hori ez dago aurreikusita “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko” proiektuaren aurrekontuan. Obra hori estalkian hegala jartzeko da, eta zenbatekoa 4.988,85 eurokoa da, BEZa barne.

6.- Onestea, bidezkoa bada, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko" obraren 2015eko azaroko 12. ziurtagiria; zenbatekoa 151.876,93 eurokoa da, BEZa barne.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- 2014ko azaroaren 17an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren bidez, ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA SL enpresari esleitu zitzaion "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko" obra betearazteko kontratua; zenbatekoa 635. 642,68 eurokoa zen, eta BEZari dagozkion 133. 484,96 euro.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresak aurkeztutako 12. ziurtagiria eta faktura, 183.771,09 eurokoa (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- D. P. O. obra-zuzendari jaunak igorritako oniritzia.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehena.- Onestea Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresak igorritako ziurtagiria. Guztira 183.771,09 euro dira (BEZa barne). Bestalde, aipatutako gastua onestea.

Bigarrena.- Diruzaintzari agintzea 183.771,09 euro ordaintzeko Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresari.

7.- Garoñako zentral nuklearra erabat desegitearen alde EAJ-PNVk eta EH BILDUk aurkeztutako mozio bateratua.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du batzordeak mozio bateratua aurkeztea erabaki zuela (hain zuzen ere gaur aurkeztu dena, eztabaidatzeko eta onesteko), nahiz eta hasiera batean EAJk bat eta BILDUk beste bat aurkeztu zuten.

Iraida andreak (AB) esan du batzordean adierazi zuenez, bere taldea EH BILDUk aurkeztutakoarekin ados zegoela (bestearekin baino gehiago). Dena den, mozio bateratuarekin ere ados daudela esan du.

Ez da ezer gehiago esan horren inguruan. Mozioa bozkatu dute, eta bertaratutakoek (10 zinegotziek) aho batez onetsi dute.

Mozioa I. eranskin gisa atxiki zaio akta honi.

8.- Udalbatza Osoari jakinaraztea organo esku-hartzaileak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari dagokionez, diruzaintzako soberakina erabiltzeari buruz.

Ez da ezer esan horren inguruan, eta Udalbatza Osoa jakitun geratu da.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakina erabiltzeko beharra, 2014ko likidazioak sortu dituen gastu orokorretarako, gastu-partidak sortzeko edo dagoeneko daudenak

handitzeko, saihestezinak diren eta 2016. urteko aurrekontuari itxaron ezin dioten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Idazkaritza kontu-hartzaileak 2015eko abenduaren 14an egindako txostena, gastu orokorrak diruzaintzako soberakinarekin finantzatzeko egonkortasuna betetzearen ondorioei buruz.

AINTZAT HARTU DA.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1. eta 7.3. artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako idazkian.

Udalbatza Osoa organo kontu-hartzaileak 2015eko abenduaren 14an egindako txostenaren jakinaren gainean dago, diruzaintzako soberakina erabiltzean aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari dagokionez.

- Eguneko aztergaien zerrendako hurrengo gaiekin jarraitu baino lehen, alkate-udalburuak proposatu du gaia eguneko aztergaien zerrendan gehitzea, puntuaren premia onetsi eta gero, EBA SL enpresari esleitutako obra-kontratua (Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko) aldatzeko; izan ere, obraren bukaerako fasean, Osakidetzako teknikariek ekipamendu, altzariak eta errotulazioa kapitulua berrikusi dute, eta aldaketa garrantzitsuak ezarri dituzte. Horren ondorioz, beharrezkoa da kontratazioko partida horiek ateratzea, ezarritako exekuzio-epeak bete ahal izateko.

Obrak amaitzeko epea 2015eko abenduaren 30a denez, ezinbestekoa da honako osoko bilkura honetan gaiari buruzko erabakia hartzea. Hortaz, Udalbatzako kideek gaiaren premia bozkatu dute, eta aho batez onetsi dute.

Ondorioz, honako gai hau gehitu da:

9.- Aldatzea, bidezkoa bada, 2014ko azaroaren 17an ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA SL enpresari esleitutako kontratua, “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina berritzeko” obra egiteko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratu diren Udalbatzako kideek (10 zinegotzi) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

GERTAKARIA.- 2014ko azaroaren 17an eginiko osoko bilkuran erabaki zen Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresari esleitzea “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko” obraren kontratua, 635.642,68 euroko zenbatekoan, gehi BEZari dagokiona; hau da, guztira 769.127,64 euroko zenbatekoan.

GERTAKARIA.- Obra bukatzeko epea 2015eko abenduaren 9a zen; hala ere, 2015eko azaroaren 19an Udalbatza Osoak epea handitzea erabaki zuen, 2015eko abenduaren 30era arte.

GERTAKARIA.- Esleitutako obraren bukaerako fasean Osakidetzako ordezkariak beheko solairua egokitzeari dagokion ekipamendua, altzariak eta errotulazioa kapitulua

berrikusi dute, eta behin-behinean esleitutako proiektuan aldaketa nabarmenak inposatu dituzte, eta horiek onartzea obra epean ez bukatzea ekarriko luke.

IKUSI DA.- Obraren teknikari nagusiak 2015eko abenduaren 14an egindako idatzia. Horren bitartez, altzariei eta seinaleei dagozkien partida horiek kontratu honetan ez betearaztearen aldeko irizpena ematen du. Beraz, aldatu egin behar da, eta partida horiek kanpo utzi behar dira.

IKUSI DA.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresak 2015eko abenduaren 10ean aurkeztutako idatzia. Horren bitartez, zenbait alegazio egiten dizkio 2015eko azaroaren 19ko osoko bilkuran hartutako erabakiari.

IKUSI DA.- Obraren teknikari nagusiak 2015eko abenduaren 16an idatzitako txostena. Horren bitartez, aipatutako alegazioei erantzuna eman zien.

Udalbatza Osoak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehena.- Aldatzea 2014ko azaroaren 17an ERAIKUNTZA BIRGAIKUNTZA ARTAPENA SL enpresari esleitutako obra-kontratua, “Luiadondoko erabilera anitzeko eraikina birgaitzeko” obra egiteko, kontratuaren helburua txikitu delako; hortaz, exekutatu beharreko obratik 03.14 partida (Osakidetzako behe solairua egokitzeko ekipamendua eta errotulazioa) kentzea.

Bigarrena.- Kontratu honen kontratuko exekuzio-prezioa gutxiagotzea, 23.272,29 euroan.

Hirugarrena.- 2015eko azaroaren 19an Udalbatza Osoak hartutako erabakiaren lehen puntua berrestea. Horren bitartez, Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresari jakinarazten zitzaien aldaketa garrantzitsurik ez zegoela, ezta 2015eko uztailetik obra berrietako partidarik ere, prezio kontrajarriko espedientean jasotako kontratuaren aldaketek, eta beraz, aurrekontuaren aldaketek, ez dute kontrataren aurrekontuaren % 10 gainditzen, ezta obra-unitateko neurketen aldaketak ere.

Laugarrena.- Enpresari jakinaraztea hormaren atzeraemangunea 2014ko azaroaren 17an esleitu zen obra-proiektuaren parte dela. Beraz, 01.01.45 aurrekontu-partidan eta A2 planoan zehaztuta eta baloratuta dago. Ondorioz, 2015eko abenduaren 30a baino lehenago gauzatu beharko da.

Bosgarrena.- Erabaki hau Eraikuntza Birgaikuntza Artapena SL enpresari jakinaraztea, obraren teknikari nagusiaren txostenen kopia batekin batera; eta adieraztea erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diola udalari, hilabeteko epean, jakinarazpen jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar dezakeela Vitoria-Gasteizeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

10.- Alkatetza-dekretuen berri ematea:

Erref.- 506/15.- I.LL.B.- Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatu du, Salmantónen dagoen eraikin bateko estalkia birgaitzeko obrarako.

- **Erref.- 507/15.- L eta BTM.-** Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatu du, Salmantónen dagoen eraikin bateko estalkia birgaitzeko obrarako.

- **Rfa.-508/15.- MC. M. U.** 2015eko ibilgailuen gaineko udal-zergaren ordainagiria itzultzea, bi aldiz ordaindu baita.

- **Erref.- 509/15. – JDV.** Ibilgailuen gaineko udal-zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun-maila bat egiaztatzeagatik.

- **Erref.- 510/15. – MVE.** – Sailkatutako jarduerako udal-lizentzia ematea, “haragiko behi-aziendako jarduera legeztatu eta handitzeko”.

- **Erref.- 511/15. - MV E** – Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatu du, Murgan abere-pabiloi bat eraikitzeko.

- **Erref. - 512/15. - AIARAKO SARAUBE HOCKEY CLUB.** 2015 urterako diru-laguntzak ematea. % 60 ordaintzeko agindua.

- **Erref.- 513/15. - I. LL. B.** – Obrarako udal-lizentzia ematea, Salmantónen dagoen eraikin bateko estalkia erabat birgaitzeko.

- **Erref.- 514/15. - M. V. E.** – Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgako lursail batean abere-pabiloi bat eraikitzeko.

- **Erref.- 515/15 - M. I. C. D. L. T.** – Obrarako lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatu zaizkio.

- **Erref.- 516/15. - A. V. D.** – Jarduera irekitzeko lizentzia ematea, Zuazako lursail batzuetan haragi-abereak eta ardiak ustiatzeko.

- **Erref.- 517/15 X. R. P. - Lizentzia ematea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko.**

- **Erref.- 518/15. – Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari diru-laguntza emateko eskaera, Arespalditzako CRAD-aren ekipamenduarako.**

- **Erref.- 519/15. – Luiaondoko Administrazio-Batzordea.-** Diru-laguntza eman da, Gizarte Zentrora eta Kontsultategira sartzeko oztopo arkitektonikoak kentzeko obra-proiektua idazteagatik ordainsariak ordaintzeko.

- **Erref.- 520/15 Arespalditzako Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza eman da, Arespalditzako erabilera anitzeko zentroaren proiektua idazteagatik ordainsariak ordaintzeko.

- **Erref.- 521/15. –Remai SA** – 128/13 RCA-ri dagozkion auzibideko tasak ordaintzeko agindua.

- **Erref.- 522/15. – 2014an EAEko beste udalerrri batzuetako kiroldegietako kuotak ordaintzeko diru-laguntza.**

- **Erref.- 523/15.-** Diru-laguntza ematea Araba Euskaraz 2015i.

- **Erref.- 524/15.-** Diru-laguntza ematea Herri Urrats 2015i.

- **Erref.- 525/15.-** Diru-laguntza ematea Nafarroa Oinez 2015i.

- **Erref.- 526/15.-** EHIGeri diru-laguntza ematea, Euskal Eskola Publikoaren Jaialdia (2015) antolatzeko.

- **Erre. 527/15.- GEOTECH SL.** Aiaran baserriak geoerreferentziatzeko kontratua esleitzea.

- **Erref.- 528/15.- G.D.E.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondon dagoen eraikin bateko estalkia konpontzeko.

- **Erref.- 529/15.- F.A.O.-** Emandako fidantza itzultzea, Etxegoieneko bidean jarritako kareharrizko margak egoki kentzea bermatzeko.

- **Erref.- 530/15.- T.V.O.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref. 531/15.- Remai SA.-** Zehapen-espedientea baliogabetzea, Murgako 4. poligonoko 60. lursailean lur-mugimenduak egiteko obra gautzatzeko hasitakoa.
- **Erref.- 532/15.-** Firmes Alaveses SA.- "Etxaurren Ikastola asfaltatzeko" obraren fidantza gisa aurkeztutako abala itzultzea.
- **Erref.- 533/15.- JMSI.-** Dokumentu gehiago aurkezteko eskatzea, Tuba de Llantenoko Plan Berezia onesteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 534/15.- T.V.O.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako lursail bateko horma konpontzeko.
- **Erref.- 535/15.- Emaus Bilbao SCIS.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako "Zerrajería jauregiko barrualdea egokitzeko eta berritzeko".
- **Erref.- 536/15.- Emaus Bilbao SCIS.-** Jarduera aurretik jakinaraztea, Arespalditzako Zerrajería jauregian "laguntzazko behin-behineko egoitzarako".
- **Erref.- 537/15.-** Jose María Olartekoetxeak igorritako bigarren ziurtagiria onestea, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren frisoaren obrarena.
- **Erref.- 538/15.- ILB-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 539/15.-** Onestea F/2015/11 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 540/15.- MJAM.-** Eskaera-ebazpena aurkeztuta.
- **Erref.- 541/15.-AVS.-** Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatu du, Menoio herrian dagoen baserri bat berritzeko.
- **Erref.- 542/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio-Batzordea.-** Behin betiko udal-lizentzia ematea, eta Menagaraiko gizarte-zentroan zenbait obraren espedientea bukatzea.
- **Erref.- 543/15.- Menagarai-Beotegiko Administrazio-Batzordea.-** Menagarai herrian dagoen "gizarte-zentroaren" jardueraren garapenaren aldeko txostena ematea.
- **Erref.- 544/15.- Etorki Kooperatiba Elkarte.-** Etorki Kooperatiba Elkarteari egindako eskaera betetzat jotzea, jarduera-espeditarean 9. neurri zuzentzailea betetzeko.
- **Erref.- 545/15.- J.A.L.L.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 546/15. Menagarai-Beotegiko administrazio-batzordea.** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menagarain dagoen bideko errepideari hinka bidez eusteko.
- **Erref.- 547/15.- Arespalditzako administrazio-batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako elizako auzoko banda erreduzitzaileen alboetan mutiloiak instalatzeko.
- **Erref.- 548/15.- D.M.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondoko etxebizitza baten estalkian erreteila egiteko.
- **Erref.- 549/15. Construcciones Ugarteko SL.-** 2015eko azaroaren 3ko administrazio-espeditentea abiarazi da eta, Depumaster SL enpresaren txostenean adierazitakoa gauzatzeko.
- **Erref.- 550/15.- Isonell, S.L.-** Jarduera klasifikatuko lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 551/15. Ecothermia Vélez Instalaciones SL.-** Agiri gehiago ematea eskatzea, Zuazako "propano gaseko edukiontzia" jartzeko jarduera baino lehen jakinarazteko espedienteari buruz.
- **Erref.- 552/15.- FAO.-** 406/15 Dekretuari jarritako berraztertze errekurtsoa baztertzea.

Udalbatza Osoa jakitun geratu da.

11.- Eskaerak eta galderak.

- Josu jaunak (BILDU) jarduera-lizentziei buruzko aholkularitza-kontratua ez jarraitzeagatik edo ez luzatzeagatik sortutako egoerari buruz galdetu du, eta erabaki hori hartzearen arrazoiak ezagutu nahi ditu.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun dio arrazoiak zegokion batzordean azaldu zirela. Hirigintza Sailaren funtzionamenduari buruzko gogoeta egin da, eta ikusi da prozedura askotan jarduera-lizentzia bat eta obra-lizentzia bat behar direla: ondorioz, herritarrak hitzordua eskatu behar du bi teknikarirekin eta bi teknikarik proiektua ikusi, txostena egin eta ikuskapen-bisita egin behar dute. 2008an zerbitzua sendotu egin zen, eta jarduera-lizentziei buruzko aholkularitza kontratatu zen; izan ere, hainbat ganadutegik euren ustiapenak legezatu nahi zituzten. Baina orain ez dago behar hori, gaineratu du Gentzak. Haiek uste dute zerbitzu eraginkorragoa eta efikazagoa egin daitekeela, baldin eta teknikari bakar batek bi zereginak egiten baditu. Jarduera-lizentziako teknikariaren kontratua otsailean bukatzen da, eta gobernu-talde honek proposatu zuen zerbitzu-kontratua beste urte batez ez luzatzeko. Hori da batzordeari egin zitzaion proposamena.

Josu jaunak (BILDU) esan du haiek txosten batzuk eskatu dituztela udaletxean; izan ere, uste dute jarduerari dagokionez nahikoa lana dagoela; hortaz, teknikari hori egotea justifikatuta dago. Gainera, teknikariak gaitasun nahikoa du bere lana egiteko. Udalean dugun esperientziaren arabera, hirigintza-zerbitzuan lan-zama handia egoten da. Horregatik harrigarria da horrelako erabaki bat arinkeriak hartzea, are gehiago, pertsonen buruz ari garenean. Jarduera-lizentziako teknikari postua interesgarria da, eta ez du diru-zama handia ekartzen; izan ere, prezioa asko mugatu zen kontratuan. Gainera, zalantza bat sortzen da: zer gertatuko da udal-arkitektoarekin? Izan ere, bi funtzioak bete behar izango dituenek, lan-zama handituko zaio.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du langile guztien lekuan jarri behar dela. Hartutako erabakia jakinarazi zitzaion interesdunari. Ez dira ari zerbitzua kentzeaz, bi zereginak teknikari bakar batek egite nahi da soilik, eraginkortasun eta efikazia handiagoa bilatzearen. Behin zerbitzu horri hasiera ematean, ikusiko da arkitektoak egun gehiagotan etorri behar duen, edo lanak nola egiten duen aurrera.

Josu jaunak (BILDU) esan du arkitektoak arduraldi handiagoa izango duela; beraz, ikusiko dugula bukaeran zerbitzuaren kostua handiagoa den edo ez.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du bide hori egin nahi dutela, eta urte batez proba egin, ea nola funtzionatzen duen. Euren ustez, zerbitzua eraginkorragoa izango da.

Lauren jaunak (BILDU) esan du udalak denbora asko daramala eskumen jakin batzuk bere gain hartzen. Duela 20 urte hasi ziren zerbitzu horiek ematen. Erabaki hori hartuz gero, ondo funtzionatzen zuen zerbitzu kenduko

da. Figura hori egon ez denetan, txarto funtzionatzen zuten gauzek. Arkitektoak denari buruzko txostenak egin behar dituen egoera ere ezagutzen dugu, eta ez zuen egoki funtzionatzen, eta jarduera-lizentziak ez ziren ondo izapidetzen. Orain zerbitzu hori dugu, oso egoera onetan ematen da eta dena behar bezala izapidetzen da. Horretaz arduratzen den teknikariaren kontrako ezer ez dugu aurkitu. Gobernu-taldeak ez digu daturik eman zerbitzu hori baztertzeko beharra egiaztatzen duenik. Udallerri zabal batean bizi gara, eta industrialde bat dugu bertan. Garatzen doan heinean, erantzun azkarra emango beharko zaio horri, eta jarraipena egin. Udal batek indar pixka bat duenean, lizentzien aholkularitza-zerbitzua eta ingurumenaren aholkularitza-zerbitzua hirigintzakotik berezita dago.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du honen ezaugarri antzekoak dituzten beste udal txiki batzuetan ez dagoela jarduera-lizentzien aholkularitzako teknikaririk.

Josu jaunak (BILDU) esan du erabat egiaztatuta dagoela udal honen hirigintza-jarduera beste udal batzuen (adibidez, Artziniega edo Okondokoa) baino askoz handiagoa dela. Adierazi du gai horrek arduratzen diela; izan ere, erabaki arbitrarioak hartzen ari direla uste dute, eta gainera, kontuan hartu behar da pertsonak daudela lanpostuen atzean.

Gentza jaunak (EAJ) komentatu du horren guztiaren helburua ez dela zerbitzurik kentzea, ezta aurreztea ere, baizik eta zerbitzu hobea eta eraginkorragoa ematea.

Josu jaunak (BILDU) esan du gure udalaren tamaina duten udaletan arkitektoak funtzionario publikoak ez izateak lan-prekarietate handia dakarrela; ardura oso garrantzitsuak dituztela eta euren lan-etorkizuna erabaki politikoen pean dagoela. Ikusiko da honen ostean datorrena, baina sumatzen da zerbait etorriko dela.

Iñigo jaunak (EAJ) esan du arkitektoak ordu bereko kontratua izango duela, eta beharrak ikusten joango direla.

Josu jaunak (BILDU) esan du ez dutela ulertzen nola egingo duen ordu beretan ohiko lanaz gain jarduera-espedienteei dagokien lana.

Josu jaunak galdetu du ea nola kudeatuko den eta zer irizpiderekin aukeratuko den arkitektoa.

Iñigo jaunak (EAJ) esan du lan hori gauzatzeko gaitasuna duten zenbait pertsonari gonbidapena egingo zaiela, eta komenigarriena hartuko dela.

Gentza jaunak (EAJ) aipatu du Kuadrillak konpromiso bat hartu zuela: 2016ko bukaera alderako Aiarako, Artziniegako eta Okondoko teknikari guztien kontratazioak legeztatzea. Beraz, kontratazio hau urtebetekoa izango da.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du ez dagoela batere ados neurri horrekin eta beste ondorio batzuk askoz gehiago kezkatzen dietela etorkizunerako.

Iñigo jaunak (EAJ) erantzun du ikusiko dela hemendik urtebetera, balantzea egin beharko dela eta neurria eraginkorra izan den edo ez ikusi.

Lauren jaunak (BILDU) esan du arkitektoaren kontratuaren baldintzak aldatu egin direla, zerbitzua berriz ateratzeko eta horrela, udal-arkitektoa aldatu ahal izateko.

Iñigo jaunak (EAJ) esan du udal-arkitektoari ere gonbidapena egingo zaiola, baita oposizioak proposatzen dituen guztiei ere.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du hori guztia arintasunez erabaki dutela, aurretik kontrastatu eta eztabaidatu gabe, eta oso azkar, Aiara Batuzen laguntzarekin.

Iñigo jaunak (EAJ) esan du egin behar zutena egin dutela. Proposamena batzordera eraman zen, eztabaidatu zen, talde politiko bakoitzak bere iritzia eman zuen, eta horrela jardun da.

Iraida andreak (AB) esan du haiek euren iritzia eman zutela, eta bi figurak batzearen alde egon zirela. Uste dugu erabakia zuzena dela.

- Josu jaunak (BILDU) galdetu du ea zein den Padura kalean egindako Garoako jasotze topografikoaren xedea.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun dio bizilagunek egindako idatzi baten ondorioa dela. Bizilagunek aparkatzeko arazoekin bukatzea nahi dute. Jasotze topografikoa egin da ingurunekeo neurriak ikusteko, eta inguruak ematen dituen aukerak balioesteko.

- Nerea andreak (BILDU) esan du udalak bando bat egin duela, bake-epaitegiko epaile-plaza betetzeko, eta baldintza espainiarra izatea dela. Eskatu du etorkizunean egingo diren antzeko prozesuetan espainiar herritartasuna izatea eskatzeko baldintza gisa, espainiarrak ez diren aiararrak ere aurkeztu ahal izateko.
- Nerea andreak (BILDU) esan du akatsen bat dagoela webgunean; izan ere, euskarazko webgunean oraindik aldatu ez diren zenbait epigrafe daude.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta bost minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamabosteko abenduaren hamazazpian.

OE
ALKATE UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos



**MUCION TRANSADA QUE
PRESENTAN EH BILDU, EAJ-
PNV A FAVOR DEL
TOTAL Y ABSOLUTO
DESMANTELAMIENTO DE LA
CENTRAL NUCLEAR DE
GAROÑA**

**GAROÑAKO ZENTRAL
NUKLEARRA ERAISTEAREN
ALDE EH BILDUK, EAJ-PNVk eta
AURKEZTUTAKO
MOZIO BATERATUA.**

MOZIOA

1.- **ΔΙΡΑΚΟ** Udalak Eusko Jauriaritzari eskatzen dio errekurtsoa egin dezala Garoñako zentral nuklearrean material nuklearrerako biltegi bat aldi baterako jartzeko baimena ematen duen ingurumen-adierazpenaren aurka.

2.- **ΔΙΑΖΑΚΟ** Udalak salatzen du Espainiako Gobernuak ez diela informaziorik ematen euskal erakundeei, ez baitute gai honetaz inolako informaziorik edo kontsultarik jaso.

3.- Euskal erakundeek (eta batez ere arabar erakundeek), Garoñako zentralaren bizialdia luzatzearen aurkakoak direnek, hainbat aldiz

MOCIÓN

1.- El Ayuntamiento de **Ayala** insta al Gobierno Vasco a que interponga recurso contra la declaración ambiental que autoriza la instalación temporal de un almacén de material nuclear en la central nuclear de Garoña.

2.- El Ayuntamiento de **Ayala** denuncia la falta de información del Gobierno de España hacia las instituciones vascas, que no han recibido ninguna información ni consulta alguna al respecto.

3.- El Ayuntamiento de **Ayala** insta al Gobierno de España, en coherencia con los reiterados pronunciamientos de las



egin dituzten adierazpenekin bat etorritz, instalazio horiek berriro irekitzeko lizentzia berria ez dezala eman eskatzen dio Laudioko Udalak Espainiako Gobernuari.

4.- AYALA Udalak Eusko Legebiltzarrari babeska ematen dio Europar Batzordearen aurrean egingo duen babes-eskaeran, Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzeko aukera egon daitekeelako egingo duena, Garoñako zentrala berriro irekitzeko balizko lizentzia emateko prozedura gainbegira dezan eta Fukushima istripuaren ondoren ezarri ziren segurtasun-baldintzak betetzen direla berma dezan, lizentzia berri bat emateko aukera dagoela kontuan izanik.

5.- AYALAKO Udalak adierazten du asmoa duela parte hartzeko Arabako Batzar Nagusietan onartutako "Garoñako Zentral Nuklearra eraisteko prozesuaren jarraipena egiteko erakunde arteko batzordean". Ildo horretatik, Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Batzar Nagusiei eskatzen die ahalik eta arinen sortu dezala aipatu batzordea.



Instituciones vascas y especialmente de las alavesas, contrarios a la continuidad de la vida útil de la central de Sta. María de Garoña, a no autorizar una nueva licencia para la reapertura de estas instalaciones.

4.- El Ayuntamiento de AYALA apoya al Parlamento Vasco en su solicitud de amparo que este va a llevar acabo a la Comisión Europea ante la nueva posible reapertura de la central nuclear de Garoña, para que supervise el procedimiento de concesión de la hipotética licencia de reapertura de la central de Garoña y para que se asegure del cumplimiento de las exigencias de seguridad impuestas después del accidente de Fukushima ante la posibilidad de concesión de una nueva licencia.

5.- El Ayuntamiento de AYALA expresa su intención de participar en la comisión interinstitucional para el seguimiento del proceso de desmantelamiento de la central nuclear de Garoña" acordada por las Juntas Generales de Araba. En este sentido insta a la Diputación Foral y las Juntas Generales de Araba a crear lo antes posible la citada comisión.



6.- AIARAKO Udalak herritarrei dei egiten die Garoña behin betiko itxi eta eraistearen alde antolatzen diren ekimen orotan parte hartzeko.

7.- AIARAKO Udalak honako mozioaren edukia herritargoari jakinaraziko zaio Udal Bando baten bitartez.

8.- AIARAKO Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuak Euskadin daukan Ordezkaritzari, Eusko Legebiltzarrari, Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Batzar Nagusiei bidaliko die, baita Endesari, Iberdrolari eta Nuclenorreri ere.

6.- El Ayuntamiento de AYALA hace un llamamiento a la ciudadanía a participar en todas aquellas convocatorias destinadas a reclamar el cierre y desmantelamiento inmediato de la Central Nuclear de Santa María de Garoña.

7.- El contenido de la presente moción será puesto en conocimiento de la ciudadanía del municipio a través de un Bando Municipal.

8.- El Ayuntamiento de AYALA remitirá este acuerdo a la Delegación de gobierno de España en Euskadi, al Parlamento Vasco, a la Diputación Foral de Araba y a las Juntas Generales de Araba, así como a Endesa, Iberdrola y Nuclenor.

Aiara 2015eko azaroaren 25ean.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala